

Familia aniztasuna da

Familia eredu ezberdinen erreportaje-serie bat prestatu du TXINTXARRI-k, eta gaur argitaratu du lehena; sexu bereko familiarena / 8-9

Somoto, hizpide berriro

Ana Urchuegia alkate ohiaren kudeaketari buruzko auzia berrieki du Gipuzkoako auzitegiak / 2

Irudi korporatibo berria eta Udaberriko Festa aurkeztu ditu Aterpea merkatarien elkarteak / 6

Tokioko Joko Olinpikoak prestatzen jarraitzen du Maialen Chourraut piraguitak / 12



Zozketa!

EÑAUT ELORRIETAK
Manuel Lekuona kultur etxean eskainiko duen **KONTZERTU AKUSTIKORAKO** bi sarrera zozkatuko ditugu izena ematen duzuen bazkideen artean.

* Eman izena maiatzaren 23a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean edo 646. 82 44 66 (whatsapp)



Trasteleku eta gordelekuen alokairua Urnietan

TRASTELEKUAK

44€

2 m² / BEZa barne

GORDELEKUAK

97€

5 m² / BEZa barne

barnE

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA
Bulegoa: Muebles Iturbe
barne.eus

Ana Urchueguia, berriro ere auzitara

Somoton (Nicaragua) diru publikoaren ustezko prebrikazio eta bidegabeko erabilpena dela-eta, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak erabaki du Lasarte-Oriako alkate ohiaren aurkako ikerketa berrirekitzea. Maiatzaren 10ean eman du agindua organo horrek

Txintxarri

Lasarte-Oriako alkate ohi Ana Urchuegiak 1986tik 2010era jardun zuen, PSE-EE alderdiko ordezkari gisa- epailearen aurrean eseri beharko du berriro ere. Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak erabaki du *Somoto auzia* izenez ezagutzen den hori berrirekitzea: Urchueguia oraindik alkate zenean, 2000. urtetik 2010.era, diru publikoa bidali zuen Nicaraguako hiri horretara. Funts horiek kudeatzerakoan prebrikazioa eta bidegabeko erabilpena egin zituela egotzita, auzitara bidali zuen Lasarte-Oriako Udalak 2014. urtean, eta haren aurkako kereila aurkeztu zuen; garai horietan, EH Bilduren esku zegoen alkateza.

Afera hori urte luzez egon da epaitegietan, *Somoto auzia* ikertzeaz arduratzen zen epaileak honako erabaki hau hartu zuen arte, 2020ko otsailaren 4an: *Somoto auzia* behin-behinean artxibatzea, "informazio faltagatik". Besteak beste, nabarmendu zuen Somotoko justiziak ez zuela laguntzarik eman kasu hori argitze aldera. Erabaki hori udaletxera iritsi eta egun gutxitara, ezohiko udalbatzarra egin zuten korporazioko kideek, eta erabaki hori helegitea aurkezte adostu zuten. EAJ-



Ana Urchueguia, 2010. urtean, alkate zela iragartzean. TXINTXARRI

PNV, EH Bilduk eta ELOP Elkarrekin Lasarte-Oria Puedek alde bozkatu zuten; PSE-EE, berriz, abstenitu egin zen. Bien bitartean, EH Bilduk iragarri zuen 2011tik 2015era alkate izandako Pablo Barriok beste helegite bat aurkeztuko zuela, akusazio partikular moduan.

Auzia berrirekitzearen arrazoiak Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak kaleratu duen autoan esan du, besteak beste, Lasarte-Oria eta Somoto senidetze aldera sortutako bulegoak ez zeukala

izaera juridikorik, baina hala ere diru publikoa bideratu zuela Nicaraguako hiri horretara. Horrez gain, dio bulego horretan lan egin zuten pertsonek baimena zutela funtsak ireki eta dirua sartzeko, eta hori ez zela behar bezala kontrolatu, Urchuegiak dekretu bidez kudeatzen zuelako.

Auzitegi horrek, hortaz, arrazoi eman dio Pablo Barriok iazko otsailean jarritako helegiteari, eta epailearen aurrean deklaratu beharko du Urchuegiak beste behin.

Koronabirusaren intzidentzia jaisten ari da Lasarte-Orian

Maiatzaren 6tik 12ra 37 kasu erregistratu dituzte gure herrian, aurreko zazpi egunetan baino hemeretzi gutxiago

Txintxarri

Apurka-apurka, laugarren olatuaren intentsitatea apaltzen ari da Lasarte-Orian. Eremita gorrian apiril hasieran sartu ginen azkenekoz, eta datu horietara itzultzen ari da herria, hilabete beranduago: maiatzaren 12ko intzidentzia-tasa metatua 467,31koa izan zen -asteazkeneko datuak izan ziren TXINTXARRI-k kontsultatua ahal izan zituen azkenak, edizioa itxi aurretik-; ez da horrelako zifra baxurik erregistratu apirilaren 12tik (451,56). Ikusteke dago zer

nolakoa izango den datozen asteetako bilakaera, baina, azken egunetako joera mantentzen bada, baliteke laster eremu gorritik ateratzea Lasarte-Oria.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 37 kasu baieztatu zituen maiatzaren 6tik 12ra Lasarte-Orian. Aurreko zazpi egunetan, aldiz, gutxiago: apirilaren 29tik maiatzaren 5era 56 positibo atzeman zituzten.

Beterri-Buruntza eskualdeko sei herrietatik lau daude eremu gorrian; guztiak, Andoain eta Urnieta izan ezik.

"Istorio harrigarriak" Orian, eta baratze lanak Zumaburuan

Auzoz auzoko tailerrak antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak; aurreneko biak maiatzaren 15ean egingo dituzte, larunbatez

Txintxarri

Baratzean lan egiten ikasi, azkabalak margotu, oihalak tindatu, ipuin harrigarriak entzun... Herritarrek makina bat ekintza gauzatu ahal dituzte maiatzean zehar, auzoz auzoko tailerrak antolatu baititu Lasarte-Oriako Udalak. Aurreneko biak maiatzaren 15ean izango dira, larunbatekin: Zumaburu plazan, baratzean lan egiten ikasiko dute herritarrek, 11:00etatik 13:30era. Oriako Brunet parkean, berriz, "istorio harrigarriak eta dibertigarriak"

entzuzko dituzte auzotarrek, ipuin-kontalariaren eskutik.

Maiatzaren 22an, larunbatean, ipuin-kontalaria Zabaletara igoko da, 12:00etatik 13:00era. Atsokakar auzoan, berriz, kotoizko jantziak tindatzeko saioa egingo dute, 11:00etatik 13:30era. Azkenik, maiatzeko azken larunbatean, hilaren 29an, elementu naturalekin nola estapanatu ikasiko dute Orian, eta ipuin-kontalaria Sasoetara joango da; ordutegiak ez dira aldatuko. Urrian beste tailer-sorta bat egingo du Udalak.

Aurtengo San Pedro Jaiak ere bertan behera utzi ditu Udalak

Festak batzordea egitarau alternatiboa prestatzen ari da ekainerako eta uztaileko, "herria biziberritzeko"

Txintxarri

Aurtengo San Pedro Jaiak "normaltasunez" ospatu ezin direla ikusita, Lasarte-Oriako Udalak erabaki du ospakizun horiek bertan behera uztea aurtengoa ere, COVID-19ak eragindako egoera tarteko.

Horren ordez, Udaleko Festak batzordea egitarau alternatiboa prestatzen ari da, ekainerako eta uztaileko. Helburua "herria biziberritzea" izango da. Udalak aurreratu duenez, mota askotako ikuskizunak programatu dituzte:

kontzertuak, bakarrizketak, kale-antzerkiak, eta abar. Emanaldi horiek antolatzerakoan, "adin-tarte guztietako lasarteoriatarak" izango ditu kontuan Udalak.

"Osasun- eta segurtasun-neurri guztiak zainduko ditugu, eta oso kontuan izango dugu unean-unean nolakoa den Lasarte-Oriako egoera epidemiologikoa", gehitu du Udalak. Iaz, jaiak bertan behera uztea erabaki ostean, ez zuen ekitaldirik antolatu. Sorgin Jaiak-ek, berriz, egitarau sinbolikoa prestatu eta burutu zuen.



2019an bota zuten azkenekoz helduen txupina Okendo plazan. TXINTXARRI

Badatoz 'Herrigintzen' ekimeneko solasaldiak

"Komunitatea elikatzeko eta Lasarte-Oria aberasteko", 'Herrigintzen' egitasmoa solasaldietan parte hartu ahalko dute lasarteoriarrek datozen egunetan. Pandemia dela-eta, aforoa mugatua izango denez, parte hartzeko izena ematea beharrezkoa da

Txintxarri

Lasarte-Oriako EH Bilduk Jarduera fisikoa, hezkuntza, sozioekonomia eta kudeaketa-ereduaren inguruko lau mahai-inguru iragarri zituen iragan otsailerako, baina pandemiaren ondorioz, *Herrigintzen* izeneko ekimen hura atzeratzea erabaki zuen. Orain, egitasmoari berriz ere heldu, eta hilabete honetan solasaldiak egingo dituztela iragarri dute.

Datorren asteartean izango da lehena, sozioekonomia arlokoa. Antonio Mercero aretoan egingo dute *Ekonomia jendarte baten beharrei erantzuteko tresna gisa* mahai-ingurua, eta bertan parte hartuko dute Estitxu Eizagirre, Argia Kazetaritza Independienteako zuzendariak; Xabier Lertxundi, Hernaniko alkateak; eta Karnele Salsamendi, Lasarte-Oriako Kool Studioko jabeak.

Maiatzaren 20an, berriz, *Jarduera fisiko inklusiboak* mahai-ingurua izango da eta kirolaren arloa jorratuko dute. Hori ere Mercero aretoan izango da, eta bertan parte hartuko dute Joxan Unsain, Gorputz Hezkuntzako irakasleak; Izar Agirretxe, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean graduatuak; eta, Beñat Larrañaga, Usurbilgo Udaleko Jarduera fisiko eta



Antonio Mercero aretoan eta Udal euskaltegian izango dira solasaldiak. TXINTXARRI

kiroletako zinegotziak eta Eskola Kiroleko arduradunak.

Maiatzaren 26an, asteazkena, hezkuntzaren arloari helduko diote, eta *Udaletik, eskolatik, herrigintzatik...herri hezitzaileak sortzen* solasaldia izango da. Udal euskaltegian egingo dute eta Itziar Ostolaza, Errenteriako Udaleko Hezkuntza zinegotziak; Nora Salbotx, Amaieur Herri eskolako zuzendariak; eta Maite Azpiazu, Oinherri herri hezitzaileen elkarteko koordinatzaileak parte hartuko dute.

Hurrengo egunean izango da azken saioa, maiatzaren 27an, hori ere Mercero aretoan:

Herritarren parte-hartzea politika publikoetan: zertaz ari gara, nola eta zertarako? Kudeaketa ereduaren inguruan solastuko dira Nerea Zubia, Oñatiko zinegotzi ohia; Asier Etxenike, Aztikerreko ikerketa eta berrikuntza zuzendaria; eta Gorka Lizarraga, Lasarte-Oriako zinegotzi ohia.

Aipatutako saio guztiak 18:00etan izango dira, eta, pandemiaren eraginez, aforoa mugatua izango da. Horregatik, horietan parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute, 683 31 98 21 telefonora deituta edota lasarte@ehbildu.eus helbide elektronikora idatzita.



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

Lasterka

Lasterka joaten da gure bizia. Azkar doa, abiadura bizian. Garai hauetan motel dabilenak galtzeko guztiak ditu antza. Hiztegi pandemikoarekin ezinbestean ohituta gauden honetan, abiadura eta erritmo kontuek, epeak, hartu duten garrantzia izugarria da.

Konfinamendu garaiarekin hasi, azkenaldian ere zer esan ugari ematen ari zaigun alarma egoeraren amaierarekin jarraitu eta tartean barneratu ditugun PCR, antigeno, aldaerak, ZIU, etxeratze-agindu eta beste hainbat hitzez osatu genezakeen hiztegi pandemiko honek, ezaugarri komun batzuk dituzte; epeak eta denborak.

Azkar irten nahi izan genuen etxetik bertan izan ginen aste luzeen ostean, azkar altxa nahi izan dira daten arabeko murrizketak kapitalaren izenean, azkar joan ginen lanera. Abiadura bizian barneratu ditugu diagnosi frogen epeak eta bakoitzak zer suposatzen duen. Zuzen aplikatu behar izan ditugu dekretu bidez edota etengabeko eraldaketan izan diren agindu berrien arauak.

Zitzu bizian betetzen dira gure ospitaleak, zorigaitzeko xomorroa festara irteten denean, zoritxarrez ere, oso azkar galtzen ditugu ingurukoak gaitzak bete bete harrapatzen baditu eta abiadura handiko zorigaitzoko anabasa honetan, abiadura hori gehien behar dugun unean, huts egiten ari zaizkigu hainbat eta hainbat alor.

Txertoari so eginez azken urtea. Iritsi da unea eta lehenik txertoa nork aterako azkarren ibili dira borrokan. Ez du laguntzen txerto sendo eta fidagarri bat gizarteari aurkezte aldera. Hasi dira lehenak txertatzen. Komunikabide batzuk tartean, gizartea oraindik gehiago nahasi eta prozedura guztia nahasten. Bide horretan txertatze erritmoa eskas doakigu oso, batzuek besteen teitatueta pilotak boteaz abiadura motelaren errudun bihurtzen dute albokoa. Orain abiadura behar denean, ez daukagu abiadura handiko azpiegiturarik, ez daukagu pertsonalik, ez daukagu zerbitzu egokirik. Daukagun bakarra pertsonak dira eta gure osasun sisteman publikoan egunetik egunera, hauek bai abiadura bizian, lasterka eta asko eta asko euren bizia arriskuan jarriaz, oinazeak nahiz oztopoak gaintuz aurrera ateratzen laguntzen digutenak dira beti. Lasterketa honetan zapatila onenak izan gabe, instalakuntza onenak izan gabe eta errelebuak eman behar direnean laugarren errelebukidea askotan falta delarik ere, beti albokoari lagundu eta lasterkari guztiak helmugara iritsi daitezen laguntzen duten abiadura handiko pertsonak ditugu.

Gizarte bezala daukagun ardura eta norbanako bakoitzaren konpromezua ezinbestekoak izango ditugu, osasun sistemari lagundu eta egoera larri eta garratz hau atzean uzteko.



Nolako Lasarte-Oria nahi eta behar dugu?

Maiatzak 18, asteartea
Antonio Mercero aretoa

Maiatzak 20, osteguna
Antonio Mercero aretoa

Maiatzak 26, asteazkena
Udal euskaltegia

Maiatzak 27, osteguna
Antonio Mercero aretoa

Saioak 18:00etan hasiko dira
Eman izena: 683 319 821 edo lasarte-oria@ehbildu.eus

SOZIOEKONOMIA
Ekonomia jendarte baten beharrei erantzuteko tresna gisa

KIROLA
Jarduera fisiko inklusiboak

HEZKUNTZA
Udaletik, eskolatik, herrigintzatik... Herri hezitzaileak sortzen

KUDEAKETA EREDUA
Herritarren parte-hartzea politika publikoetan: zertaz ari gara, nola eta zertarako?

ehbildu

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



jarraitu herriko albisteak sarean

www.txintxarri.eus



Emakumeen* ikuspegitik begiratzeko proposamena

aSunak Lasarte-Oriako neska* gazteen taldeak, 'Non daude emakumeak?' erakusketa egin du. Herrian emakumeek* dute ikusgarritasun eza gaitzestearekin batera, ezinegona sortzen dizkieten puntu beltzen berri ere eman dute erakusketa baten bidez

Maitane Aldanondo

aSunak neska* gazteen taldeak antolatutako *Non daude emakumeak*?* erakusketa Okendo plaza hartu zuen larunbat goizean. Bi aldeetatik edukiz betetako zazpi panelen inguruan antolatutako ibilbideak, Lasarte-Oriako zenbait txoko ekarri zituen plazara, gogoeta sustatzeko xedez.

Ekimen xumea izanagatik, edukiz betea ere bazen. Batetik, herriko zenbait puntu beltzen irudiak bildu dituzte. Gaizki argizatutakoak, errepide azpiko pasabideak, tunelak, bide bakartiak... Atsokabarren, Sasoetan, Zumaburur, Zabaletan, Hipodromoan eta Erdigunean atzemandako hogeit bat leku. Guztiek komunean dute "neskei* eta emakumeoi* ezinegona sortzen diguten guneak" direla.

Bestetik, emakumeen ikusgarritasun falta Lasarte-Oria osatzen duten kale eta txokoetan. Izendegian emakume izenik ez dela salatzen dute, gizonezkoen

baten omenez bataiatuak izan ziren dozena erdiri emakumezko izenarekin sortutako aldaera jarrita. Era berean, herrian barreiatuta dauden estatua nahiz arte lanak ere gizonezkoek eginak direla gaitzetsi dute.

Goiza aurrera joan ahala, lasarteoriatarrek Okendo plazako erakusketa ikustera animatu ziren eta bere helburua bete badu, eztabaidaren bat piztu edo zer pentsatua emango zuten.



Emakumeen* ikusgarritasun falta gaitzetsi dute erakusketa bitartez. TXINTXARRI



Ekimen xumea izan da, baina edukiz betetako: zazpi panel jarri dituzte. TXINTXARRI



Emakumeei* ezinegona sortzen dizkieten guneak erakutsi dituzte. TXINTXARRI



Hainbat herritarrek bisitatu dute aSunak taldearen erakusketa. TXINTXARRI

Ibiltarien sareak tontorretara eramán ditu bere aldarriak

Okendo plazatik abiatu eta Benedikara eta Buruntzara igo dira herritarrek, euskal presoek eskubideak aldarrikatzera

Txintxarri

Izan Bidea dinamikaren barruan, Euskal Herriko 650 mendi tontor igotzeko deia egin zuen Sarek. Horrekin bat egin dute dozenaka lasarteoriatarrek larunbat goizean (maiatzaren 8an) Benedika eta Buruntzara igota.

Urriaren egitekoak ziren ekintza bertan behera utzi behar izan zuten, eguraldi txarrak hala behartuta. Hitzordu berria maiatzaren 8an jarri zuten eta orduko ziklogenesi leherkoraren lekuan, udako eguraldia egokitu zaie oraingoan. 09:30ean Okendo

plazan ezarrita zuten irteera. Bertan elkartu dira eta talde-argazkia egin dute mendira bidea hartu aurretik.

Benedika izan da igotako lehen gailurra, eta handik, Azkorterara jarraitu zuten, Buruntzara mendiaren tontorrera joan aurretik. Han beste talde-argazki bat, irrintzia eta kanta egin zituzten. Antolatuzaileek adierazi dutenez, 135 bat lagunek parte hartu zuten aldarrikapen ekintza horretan.

Euskal Herriko hamaika menditan errepikatu duten



Benedika eta Buruntzara joan dira lasarteoriatarrek euskal presoek etxeratzea eskatzeko. LASARTE-ORIAKO SARE

jarduera honen bidez, 650 tontor igotzearen bidez, euskal preso eta iheslarien etxeratzea aldarrikatu dute, urrutze

politika bertan behera uztea eta gradu progresioa preso guztiei ezartzea eskatuz. Sei urte daramatza ibiltarien sareak

bidea egiten, pausoak ematen euskal presoek egoera "konpondu" eta "bizikidetzatza eta bakea" lortzeko bidean.

"Betidanik gustatu izan zait mundu hau"

MAITANE REBE IGARTUA 'SIN LÍMITES' TELESAILAN FIGURANTE

Amazon Prime eta RTVE ekoizten ari diren 'Sin límites' telesailaren grabaketa-prozesua barrutik ezagutu du herritar gazteak: hiru eszenatan parte hartu du, figurante moduan

Iñigo Gonzalez Sarobe

Apiril amaieran XXI. mendetik XVI.era egin zuen jauzi Maitane Rebe Igartuak (Lasarte-Oria, 1996): Amazon Prime Video eta RTVE ekoizten ari diren *Sin límites* telesailaren –Juan Sebastian Elkano eta Fernando Magallanes marinelek itsasontziz egindako mundu-bira du oinarri–zenbait atal grabatu zituzten Azkoitian, eta horietan parte hartu zuen herritar gazteak, figurante gisa. Bizitakoa kontatu dio TXINTXARRI aldizkariari.

Nolatan izan duzu aukera *Sin límites* telesailan figurante bezala parte hartzeko?

Modfie agentziaren web-orrian ikusi nuen iragarkia, eta izena ematea erabaki nuen, apiril hasieran. Beste bi grabaziotara ere apuntatu naiz: promozio-bideo batera, eta *streaming* plataforma famatu batek ekoiztiko duen telesail batera. Oraindik ez dakit horietan parte hartu ahal izango dudala ala ez.



'Sin límites' telesailakoa esperientzia "izugarria" izan da herritarrentzat. TXINTXARRI

Figurante izan nahi duen pertsona batek zer ezaugarri bete behar du?

Eskaera egiten duzunean, zu azaltzen zaren argazkiak bidali behar dituzu: profitez bat, eta gorputz osokoa bestea. Agentziak bilatzen dituen ezaugarriak betez

gero [ilearen edo begien kolorea, esate baterako], aukeratuko zaituzte; bestela, ez.

Aukeratua izan zinen zu, eta Azkoitiako grabaketetan parte hartu zenuen, apiril amaieran. Zer moduzkoa izan zen esperientzia?

Izugarria. Grabazio batean zenbat jendek parte hartzen duen ikusteak asko harritu ninduen; langile, aktore edo figurante, pertsona asko ginen, baina guztia oso ondo antolatua zegoela iruditu zitzaidan. Tabernari baten rola eman zidaten niri, eta hiru eszenaren filmatzean aritu nintzen, Irlandatik eta Madrildik etorritako bi pertsonarekin batera. Esperientzia asko dute, eta horrek lasaitu egin ninduen; batez ere, kamera gugandik oso gertu zegoenetan.

Zure aurreko esperientzia izan da bizitu berri duzun hori?

Telmo Esnalek zuzendutako *Dantza* filmean parte hartu nuen, baina azken hau desberdina izan da, dimensio handiagoko zerbait. Grabatzen hasi aurretik, prestaketa-lan ugari egin genituen: soinekoa josi zidaten, XVI. mendeko girora egokitzeak makillatu ninduten, eta jantzita neraman arropa zikintzeko hautsa bota zidaten, eszenak hori eskatzen zuelako. Hori guztia egin eta gero, gu prestatzeaz arduratu ziren profesionalak banan-banan aztertu zituzten figurante guztiak, ezerk ez zezan hutsik egin. *Line up* deitzen zaio horri.

Hiru eszena grabatu zenituen bi egunetan, apirilaren 29an eta 30ean. Nolako izan zen lan-erritmoa?

Bi egun horiek oso politak eta biziak izan ziren, oso nekatuta amaitu nuen. Behin eta berriz errepikatu genituen eszenak, produkzioan ari diren profesionalak

balekoak zirela esan arte. Gogoratzen dut bi kanta ikasi behar izan genituela, grabatu bitartean abesteko.

Filmatze horietan parte hartu zuten pertsonekin harremanik egin ahal izan zenuen?

Bai, pertsona ugari ezagutu ahal izan nituen: batez ere figuranteekin harremandu nintzen, baina zenbait aktoreekin ere bai, Alvaro Morte eta Carlos Cuevasekin. Oso-oso gertukoak eta jatorrak iruditu zitzaizkidan, gugatik asko kezkatzen ziren. Telesail eta filmetan agertu daitezten, animaliak eramaten dituen pertsona bat ere ezagutu nuen, Faltzeskoa (Nafarroa). Txakurra daukat nik, eta esan zidan, egunen batean behar izanez gero, agian eraman zezakeela. Ederra litzateke hori!

***Sin límites* telesailakoa bezalako deialdietara aurkeztu jarraitzeko asmoa duzu?**

Urte askotan antzerkia egin dut, eta betidanik gustatu izan zait mundu hau, baina oso argi dut ahal dudanean parte hartzen saiatuko naizela horrelako filmatzeetan, ez nukeela lanbide izatea nahiko, oso-oso zaila baita aktore izatetik bizitzea.

"APIRILAREN 29 ETA 30EKO GRABAKETA-EGUNAK OSO BIZIAK ETA POLITAK IZAN ZIREN"

Aurrematrikula egiteko azken eguna, maiatzak 21

Udal Musika Eskolan aritzeko plaza eskatzen duten herritarrek kuota osoaren %10 ordaindu beharko dute

Txintxarri

Udal Musika Eskolan plaza eskatu nahi duten herritarrek maiatzaren 21era arteko epea dute, ostiralez, egun hori barne. Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi duenez, kuota osoaren %10 ordaindu beharko dute aurrematrikula egiten duten herritarrek, une horretan bertan.

Matrikula egiteko epea beranduago hasiko da: ekainaren 7tik 18ra bitartekoa izango da, baina, tramite hori egin ahal izateko, "nahitaezkoa" izango da alde aurretik aurrematrikula eginda izatea. Plazen esleipena

e-posta bidez jakinaraziko duela adierazi du Udalak.

Hobariak

GLL Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak jasotzen dituzten pertsonen salbuespenak eta hobariak izango dituzte, eta langabetuek ere bai. Horrez gain, Udalak zein Eusko Jaurlaritzak ematen duen gazte txartelaren titularrek deskontua izango dute, %10; familia ugariak, aldiz, %30. Udal Musika Eskolako kuotetan hobariak eskatu nahi dituztenek honako baldintza hau bete

beharko dute, ezinbestean: bizikidetzaren unitate bereko bi kide edo gehiagok izena ematea eskola horretan.

Udal Musika Eskolak jardun ahal izateko tasak bankuko domiziliazioaren bitartez pagatu beharko dira, bi modutara: ordainketa bakarra eginez, irailaren 25etik 30era; edo, bestela, zatikatua.

Literatura-lehiaketa

2021eko literatura-lehiaketara lanak aurkeztu nahi dituztenek ere maiatzaren 21era arteko epea izango dute. Udalak gogorarazi du sormen-obra horiek jatorrizkoak izan beharko dutela. Urtero bezala, euskarazko zein gaztelaniazko poesiarako, ipuinetarako eta mikroipuinietarako sariak banatuko ditu. Haurren eta helduen lehiaketak egingo dituzte.



GORKA RUBIO

Nafarroako inbasioaz

Iñaki Lopez de Luzuriaga historialari lasarteoriatarra *Nafarroako Erresumaren Inbasioa (1199-1200)* liburua aurkeztuko du maiatzaren 15ean, Antonio Mercero gunean, 12:00etan. Nabaralde argitaratu du lana, eta ekitaldia ere antolatuta du. Nafarroako une historiko lazgarriaren bati heldu dio Lopez de Luzuriagak: itsasorako aterabide zuten lurraldea Gaztelarren aurka galdu zueneko.

Irudia berri du Aterpeak, tradizioa ahaztu gabe

Irudi korporatibo berria sortu du merkatarien, ostalarien eta zerbitzu pertsonalen elkarteak; eragile horretako hainbat kideri eta zenbait udal-ordezkariri aurkeztu die, kultur etxean egindako aurkezpenean. Artsier establezimenduko Asier Esparzak egin du logotipo berria

Maitane Aidanondo

Bigarren gaztaroa hasi nahi du Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak. Hori azaleratu eta ikusgarri egiteko, irudi korporatibo berri bat sortu du zenbait baliori lotuta. Elkarteko hainbait kideri eta udal ordezkariri ezaguratarazi diote kultur etxean egindako aurkezpenean. Hain zuzen ere, Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandez, udaleko enplegu dinamizaziorako teknikari Dionisio Alvarez, EAJ-PNVko zinegotzi Boris Nogales eta EH Bilduko Jon Martin izan dira saioan, hamabost bat merkatariarekin batera.

Albo banatan, elkarteko lehendakariorde Ana Laureano eta Artsier establezimenduko Asier Esparza zituela, bertaratutako guztiei eskerrak emanez ekin dio Aterpeako lehendakari Miguel Angel Prietok ekitaldiaren hasierako hitz hartzeari. Bereziki, elkartekideei



Aterpeak maiatzaren 7an aurkeztu zuen irudi korporatibo berria. TXINTXARRI

"garai zail eta nahasi hauetan" saltokiak zabalik dituztelako, "gertuko merkataritza baten alde eginez. Gertukoa, profesionala eta enpatikoa. Meritua baduzue". Txaloekin erantzun diote bertaratutakoek aitortzari.

Hobetzeko eta berritzeko bidean urrats bat gehiago egin nahian, Aterpeak irudi korporatiboa gaurkotu du. "Berriagoa da, baina urteotako esentzia eta tradizioa ahaztu gabe", zehaztu du Prietok, eta sarrerako hitz horiek amaituta, Esparzari eman dio

lekukoa, burututako lanaren azalpena egin zezan.

Izenak berak argi uzten du zein den asmoa: Aterpea 2.0. "Berritzeko beharra baitzuen markak", aitortu du Esparzak. Marka elkarteak izan nahi duenarekin bat ote datorren galdera abiapuntu hartuta ekin zion birdiseinuari.

Orain arteko elementu gakoa zen ferra, "ikono bilakatu da, ezaguterra", beraz, hura gorde du; baina itxura aldatuta, nahiz eta Aterpeakoa dela argi ikusteko moduan. Izenaren A ere mantendu du, eta biak batzen dituen isotipoan -izenik gabe ulergarria den anagrama- uztartu ditu.

Ez da hori aldatu den gauza bakarra. Tipografia ere ordeztu du, "erraza eta minimalista" den batekin; eta orain arteko koloreak baztertu ditu, urdinaren alde egiteko. Kolore hori hartu du "freskoa delako eta oxigenoa ematen digulako. Pandemia garaian eta musukoarekin horrenbeste behar izan dugun oxigenoa".

"Beldurra" eragiten duen Urbil merkataritza gunearen aurrean, udalerriko merkataritza txikiak dituzten ezaugarriak nabarmendu ditu: betiko merkataritza, etxe azpian dagoena, "zenbat balio du horrek? Zenbat balio izan du pandemia garaian?"; sei kilometro koadroko azalera eta 84 bazkide.

Irudi berri horrekin egin daitezkeen zenbait merchandising aukera ere erakutsi ditu: "A"

itxurako heldulekua duten erosketa poltsak, globoak, giltzatak, elastikoak... Udaberriko kanpainan hasiko dira isotipo berria erabiltzen eta urteko bigarren erdian kanpaina bat egingo dute, "orain azalduko ez ditugun gauza batzuekin", markaren berritze prozesua amaitzeko.

Inbertsioekin laguntzeko

Lasarte-Oriako Udalak dirulaguntza-lerro bat jarri du marbxan, herriko merkatariak azkenaldian egin behar izan dituzten inbertsioekin laguntzeko: askok moldatu behar izan dituzte negozioak egoera berrira, COVID-19ak eraginda. Establezimendu bakoitzak 1.500 eurora arteko ekarpena jaso dezake.

Deialdia 28.601 eurokoa da eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurune Sailak finantzatu du. Dirulaguntza eskatzeko azken eguna maiatzaren 31 izango da, astelehenarekin. Finantzatu ahalko diren inbertsioak 2020ko martxoaren 14tik 2021eko maiatzaren 15era artekoak izango dira.

Udaberriko Festa, maiatzaren 17tik 28ra, tokiko kontsumoa bultzatzeko

Lasarte-Oriako establezimenduetan erosketak egitea sustatzeko asmoz, Aterpea elkarteak eta udal-ordezkaritza batzuek Udaberriko Festa aurkeztu dute Hipodromo Etorbidean, Maya lantzeria-dendaren atarian.

Kanpaina hori maiatzaren 17tik 28ra gauzatuko da, bi egunak barne (astelehena eta ostirala dira, hurrenez hurren). Tarte horretan herriko komertzioetan erosketak egiten dituzten herritarrek saria izango dute, Aterpeak 1.500 euro banatuko baititu erosketa-txarteletan. Elkarte horretako lehendakari Miguel Angel Prietok eta Udaleko Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandezek lasarteoriatar guztiak animatzen dituzte Udaberriko Festan parte

hartzera. Fernandezek gehitu du "funtsezkoa" dela Aterpeak Lasarte-Oriako burutzen duen lana. "Beti izango gaituzue alboan, garatzen dituzuen ekimenekin laguntzeko".

Marrazki-erakusketa

Garaikoetxea-Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako 750 haurrek parte hartu dute Aterpeak luzatutako proposamenen: orri bat hartu, eta koloretako arkatzekin irudikatu dute zer gauza polit gertatu zaizkien azken urte eta bi hilabete hauetan, COVID-19aren pandemiak 2020ko martxoetik gure egunerokoa irauli zuenetik. Lasarte-Oriakoetakoek ez ezik, inguruko herrietako



Aterpeak elkarteko kideak eta udal ordezkariek Udaberri Festa aurkeztu zuten. TXINTXARRI

ikastetxeetako neska-mutilek ere parte hartu ahal izan dute ekimen horretan.

Marrazki horiek guztiak ikusgai izango dira maiatzaren 17tik 21era, Udaberriko Festaren kanpainan parte hartu duten 44 establezimenduetan. Dendaz denda joan

beharko dute haurrek, margolanak aurkitzeko. Hori egiten dutenean, negozio bakoitzeko arduradunek opari bana emango diete: bisera zuri bat, Aterpea elkartearen irudi korporatibo berria inprimatuta daramana.

Udaberriko

Kontsumitu ezazu
Lasarte-Orian maiatzaren
17tik 28ra, eta parte har ezazu
erosketa-bonoen zozketan.

festak



1.500€ saritan

Kontsulta ezazu establezimendu parte-hartzaileen zerrenda

ALBA MODA

MERCERÍA ARITZA

ARKUPE TABERNA

BAZAR ABREU

BIDEO LAGUNAK

CARREFOUR EXPRESS

CLÍNICA DENTAL ALDAZ

NOGUES MODA

ELECTRICIDAD ARREGUI

FERRETERÍA SUKOA

GESTORÍA BETELU

MAYA LENTZERIA

MERCERÍA OLMÍ

URRUZOLA MERTZERIA

NOAOA BIDAIK

ÓPTICA LIZARRI

ORBELA EKODENDA

ORMAZABAL LORADENDA

PERFUMERIA MAIANE

ARAETA SAGAROTEGIA

SANTANA INFORMÁTICA

VENTANAS ALCAR

VENTANAS ISU LEIHOAK

PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA

ZAPATERÍA ITURBE

OSTEOPATIA NOELIA CALERO

CAFÉ-BAR BUENETXEA

AVENIDA TABERNA

MULTIOPTICAS LASARTE

FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA

BAR LASARTE

VIÑA DEL MAR KAFETEGIA

OLA ENMARCACIÓN

LOTERÍA IZAGUERRI+C

BERASATEGI KAFEAK

PELUQUERIA MAY

LAVIE GASTROBAR

PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA

ADMINISTRACION DE FINCAS MILLA

PUERTAS Y VENTANAS ZURLAN

NATURHOUSE

ORUE BOTIKA

PELUQUERÍA MARBELL

TXEMA VALLES-PUBLIBROCK

LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL

MASAJISTA RAKEL

ARTESANÍA INÉS FLORES

OIHANA ESTETIKA

DOAL SALUD

ARTSIER FOTÓGRAFO

HALCÓN VIAJES

CLÍNICA PODOLÓGICA AMAIA OLONDRIS

SILVIA LUIS ARBIZU ADMON. DE FINCAS

ACADEMIA DE INGLES STRATFORD

PELUQUERÍA BEA

DECO 75 TEXTIL HOGAR

INMOBILIARIA RK

ADATS ORRAZTEGIA

ÓPTICA IRIGOYEN

MABEL MODA

AITONAK OKINDEGIA

BIZKER RÓTULOS

CENTRO DE MASAJE KIMA

CALZADOS LEDER

KAIZEN MUEBLE Y DECORACIÓN

DULCE TENTACIÓN

IMAGINE JANTZI DENDA

EGUZKI TABERNA

BAR-CAFETERÍA BUS

NORTH TEAM NUTRIZIOA

MERCERÍA MAUXA

HIRU ALDETA TABERNA

SORAYA GALLEGO MICROPIGMENTACIÓN

COCINAS, BAÑOS Y REFORMAS CLOVER

BAR ORIA-TXIKI

PELUQUERÍA MANI'S

YOGA LASARTE

ADMINISTRACIONES BARDAJI

HAUNE INTERIORISMO

ZUBIETA MOTOR



LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



aterpea

SERIEA



Sexu bereko familia. Maiatzaren 15a Familiaren Nazioarteko Eguna dela baliatuta, familia eredu ezberdinen gaineko erreportaje sorta bat argitaratuko du TXINTXARRI-k gaur hasi eta datozen asteen zehar. Sexu bereko Agirre-Mantzizidor familiaren testigantza izango da serie horretako lehen argitalpena.

'Amatxo' eta 'amaren' alabak

AMAIA AGIRRE AGIRRE-MANTZIZIDOR FAMILIAKO 'AMATXO'

Sexu bereko bi pertsonok osatu dute Agirre-Mantzizidor familia; Amaiak eta Ainarak. Hiru alaba dituzte eta euren familia-ereduaren berri eman dio Agirrek TXINTXARRI-ri

Maddi Zaldúa ASTEASU

Elkar ezagutu eta urtebetera erabaki zuten Amaia Agirrek (Villabona, 1977) eta bere bikotekide Ainar Mantzizidorrek (Lezo, 1981) seme-alabak edukitzea; orduantxe eduki zuten "inoiz baino argiago" Agirrek ama izan nahi zuela. Horrela azaldu dio TXINTXARRI aldizkariari, familia eredu ezberdinen inguruko erreportaje sorta osatzeko elkarrizketa egiteko elkartu direnean. "Erabat arrotza" zitzairen mundu batean murgildu zirela aitortu du; euren ametsa egia bihurtzeko aukera onenaren bila abiatu ziren.

Haurrak harreran edo adopzioan hartzeko aukera baztertu gabe, bakoitzak biologiko bana edukitzearen aukerari eutsi zioten aurrena. Horrela, osasun-etxe pribatu batera deitu, eta prozesua martxan jarri zuten gaur duela zortzi urte eta erdi. Deia egin eta hilabetera kontsultan zeuden, eta beste hilabeteren barruan, lehen intseminazioa egin.

"Itsu-itsuan" ekin zioten, hasi berri zuten prozesu hari. Ez zuten euren prozesu berdina lehenago bizi eta aholkulari edo bidelagun izan zitezkeen bikote lesbianarik inguruan, hortaz, esaten zietenari "isil-isilik"

jarraitu zioten hasieratik. Esperientzia hartatik, ordea, argi ikasi dute, gauzak ez lituzketela orduan bezala egingo egun. Amaiak, beste urtebetez bertso-munduari eusteko asmoz, lehen haurdunaldia Ainarak bizi zela erabaki zuten, eta esperientzia haren berri eman du.

Lehen intseminazioaren ondorioz, 10 folikulu edo obulu izan zituen bikoteak ernaltzeko prest: "Arrakastaren emaitza zela uste genuen; geroz eta gehiago intseminatu, orduan eta aukera gehiago izango genituela haurdun geratzeko". Gerora, ordea, aldatu da sinesmen hori. Gaur-gaurkoz, hormonatu zuten kopurua "gehiagizkoa" izan zela azalduz jarraitu dio Agirrek aurreko adierazpen horri. Baina hori ez zuten gertatu zen uanean jakin, gerora baizik.

Hamar horietatik bost enbrioi ernaldu ziren, eta, lorpen hura umorez bizi zutela oso gogoan du: "Arrakastaren bide horretan,

"GAUR EGUN EZ GENUKE LEHEN HAURDUNALDIA ORDUAN EGIN GENUEN BIDETIK EGINGO"

txisteak egin eta egin aritzen ginen, umorez bizitzen genuen momentu hartakoa, errealtatea zein zen ohartu gabe. Ametsa betetzen ari zen".

Haurdunaldia eredu bederatzigarren astean, erredukzio bat egin zioten Mantzizidorri, eta bost enbrioietatik birekin jarraitu zuten haurdunaldia: neskatila eta mutiko batekin.

Bat-batean, errealtate kolpea

Haurdunaldiaren hamabigarren astean iritsi zen "momentu kritikoa". Tratamendua hasi zuten osasun-etxe pribatuko ohiko azterketa batean esan zieten neskatilak garondotolestura handiegia ote zeukan, eta down sindromearekin jaioko ote zen edo ez ziurtatzeko, amniozentesia egin beharko ziotela Ainarari. Proba hori egin ahal izateko diruaz ere hasi ziren hizketan, eta orduan egin zuten "klik" Agirreraren buruak: "Une hartan adierazi nion Ainarari zerbait ez ginela ondo egiten ari, dena diruaren bueltan joatea ez zela posible, eta gizarte-segurantzara jotzea erabaki genuen".

Bertan artatu zituen medikuak Agirre eta Mantzizidorrek azalpenak entzun, eta



Amaia Agirre eta Ainar Mantzizidor, Jare, Arai eta Maren alabekin, Asteasuko etxe atarian duten terrazan.

kontsultaren zergatia zein zen galdetu ostean, jarri zuten aurpegiak baieztatu ziren bi amagaiei ordura arte gauzak ez zirela behar bezala egin.

Osasun-etxe pribatuak neskatilari egindako diagnostikoa ukatu zuten gizarte segurantzako mediku berriak, baina, Ainarari ekografia egin ostean, mutikoari atzeman zion "kardiopatia larri bat". Orduan jakin zuten jaioko eta denbora gutxira hiltzen ez bazen, betiko gaixo-larria izango zela, eta mutikoaren haurdunaldia etetea aholkatu zieten. Horrek, ordea, berarekin zekarren beste arrisku handi bat; gorputzak abortu gisa jasotzea mutikoaren prozesuaren etetea, eta, gorputzak berak, naturalki, neskatila ere kanporatzeko prozesua abian jartzea. "Orduan jaso genuen errealtate kolpea. Bizitzak hankak lurrean jarri zizkigunean eta konturatu ginenean

"BATZUETAN BADUZU ZOR EZ DITUZUN AZALPENAK EMATEKO INDARRA, BAINA BESTE BATZUETAN EZ"

arrakastaz bost enbrioiekin hasi zena, hutsean geratu zitekeela". Egoeraren aurrean, argi zeukaten helburua: neskatilaren haurdunaldiak ahalik eta gehien egin behar zuten aurrera.

Itxarotea, luze

Hemeretzigarren astean eten zuten mutikoaren haurdunaldia, eta gerta zitekeen moduan, poltsa hautsi egin zen: "Oso une gogorak izan ziren. Neskatila erditu egingo zen beldur, Ainarak komunera ere ez zen joaten".

Hogeita laugarren astera arte, egunak joan eta etorri ziren, baina aste horretan, mutikoaren gorpua kanporatzen hasi zela antzeman zuten Ainarak, eta bikotekidea etxera heldu bezain laster, Villabonako -garai hartan han bizi ziren- ambulatiora joan ziren. Artatu zituen emaginak, mutikoaren gorpua atera, eta neskatilaren bihotz-taupadak antzematen zituela ziurtatuta, ospitaleko urgentzietara bideratu zuten bikotea. Pronostikoez zehazten zuten, une batetik bestera Ainararen gorputza neskatila ere kanporatzeko prozesuan jarriko zela. Hori espero zuten



ten terrazan, TXINTXARRI-ren kamara aurrean, argazkirako prest. TXINTXARRI

bikoteak ere, baina ez zen hala gertatu: "Denon harridurarako, egunak joan eta egunak etorri, neskatilak tripa barruan jarraitu zuen, hiru astez. Ezin genuen sinetsi".

Hogeita zazpigarren astea bete aurretik sentitu zituen Mantzizidorrek lehen kontrakzioak, eta handik gutxira jaio zen Jare, eta 72 egun inkubagailuan igaro ostean joan ziren, lehenengoz, hirurak etxera: "Urtezahar eguna zen. Beldurrez beteta iritsi ginen etxera, inkubagailuan dena baitzegoen kontrolpean. Pentsa, behin eta berriro jartzen genion alabari sudur azpian behatza, arnasa hartzen ari zela ziurtatzeko".

Lehen haurdunaldia Ainarak bizi ostean, Amaiak hasi zuen prozesua, Jarek urtebete eta hiru hilabete zituela.

2015. urtean, lehenengo intseminazio saiakeran ez zuen haurdun geratzerik lortu. Hilabetera, bigarren saiakeran hasi berri zela, ordea, bere amari minbizia detektatu eta hilabetera hil egin zen: "Momentu hartan, prozesua bere horretan uzteko erabakia hartu nuen, eta handik urtebetera hasi nintzen berriro".

Osasun-etxe pribatu batera jo zuten orduan ere, baina ez Jareren haurdunaldiko berera. Norabide hura, ordea, aldatu egin zen bat-batean. Gizarte-segurantzako itxaron zerrendan zegoen Agirre, eta bertatik dei bat jaso zuen eta prozesua bertatik bideratzea erabaki zuten: "Lehen saiakera hartan haurdun geratu nintzen, baina, hamargarren astean, haurrak taupadarik ez zuela esan zidaten eta abortua izan nuen".

Jarraitu zuen haurdun geratzeko saiakerekin aurrera, nahiz eta, garai hartako familiaren egoera ez zen "xamurra". Haurdun geratu nahian ari zela, Jare alabari minbizia atzeman zioten: "Bizipoz bat ere behar genuen eta saiatzen jarraitzea erabaki genuen". Ez zuen lortu, ordea, eta ibilbide hari amaiera emateko erabakia hartu zuten orduan.

"SENTITU IZAN DUT GIZARTEAK MARKATZEN DUENETIK ATERATZEAK SORTZEN DUEN ZAMA"

Hiru haur izateko ametsa

Betidanik izan zuten "hiru haur" izateko desira, baina alabaren gaixotasunari aurre hartzeko ahaleginetan murgilduta, Ainarak adierazi zion Amaiari ez zeukala berriz ere haurdun geratzeko inolako gogorik. Gauzak aldatu ziren, aldiz, Jare gaixotasunetik errekuperatzen joan ahala: "Jare osatzen hasi zenean adierazi zidan Ainarak ez zuela lehenengo haurdunaldiaren bizipen eta oroitzenarekin geratu nahi, eta berriro ere haurdun geratzeko prozesu berri bat hasteko erabakia hartu genuen".

Gizarte-segurantzara jo zuten orduan, baina hemezortzi hilabeteko itxaron zerrenda zegoenez, pribatura joan ziren. Oraingoan, hirugarren osasun-etxe pribatu batera, baina aurretik bizitakoak emandako esperientzia eta jakintzarekin: "Bagenekien zertara gindoazen eta prozesuak nolakoa behar zuen izan". Prozesu hura "oso ondo" joan zen eta horren fruitu dira Mare eta Arai bikiak. Bost urte geroago, baina Jare ahizparen hilabete berean jaio ziren: urrian.

Etxeko seigarrena, beldurra

Amaia, Ainar, Jare, Maren eta Araik osatzen dute Agirre-Mantzizidor familia, baina bada, euren teilatupe berean bizi den bestelako elementu bat ere: beldurra. "Nik beti esaten dut gu etxean sei gabela; gu bostok eta beldurra", azaldu du Agirrek.

Gizarteak markatzen duen korrontearen aurka joateak "beldurra" eragin izan dio zenbaitetan; "ohikotik" ateratzeak sortzen duen zamari egin dio erreferentzia: "Errealitatea onartu nahi ez, eta ezberdina izateak sor ditzakeen beldur eta konplexuak kudeatzea ez da erraza. Barne-borroka askori egin behar izan diet aurre; nire burua lehenengoz lesbiana izendatu nuenean sekulako izerdia antzeman nuen bizkarrezurretik behera. Familia bat osatzea pentsatzen hasi ginenean ere, ezin duzu imajinatu, zenbat negar egin nuen, haiek jaio eta eskolara hasten zirenean, bi amen seme edo alabak izateagatik barre egingo zietela pentsatzen nuen bakoitzean. Jareren gaixotasunaren berri izan genuenean pasa zitzaizkidan txorakeria haiek guztiak".

Bikote homosexualen arteko harreman eta familiak geroz eta ohikoagoak diren arren, oraindik egiteko "borroka asko" dagoela iritzi du. Gaur gaurkoz, jarrera eta begirada "deserosoen" lekuko izatea egokitu zaio eta adibide bat ere jarri du. "Behin, Asteasun, bidegorrian paseora irten ginen gu bostak eta bizilagun bat. Bat-batean, bizilagunaren ezagun emakumezko batekin gurutzatu, eta hark bizilagunari amona egin ote zioten galdetu ostean, bizilagunak ezetz erantzun zien, azalduz, gureak zirela hiru alabak. Berehala iritsi zen emakume haren erantzuna. Bienak ezin zutela izan; izan, bakarrarenak izango zirela: "Deigarria da horrelako erantzunak jasotzea esan dizutenean gureak, bionak direla. Hori gertatzen da, klik egin beharrean, betiko jarrerei eusten dietelako, batzuetan oharkabean. Ikuspegia apur bat irekiko balute...".

Horrelako jarreraren aurrean, askotan "azalpen ugari" eman behar izan dituzte eta hori kudeatzea, hainbatetan "neketsua" egin zaiola aitortu du: "Indartsu nagoenean egiten dut azalpenak emateko ahalegina, nahiz eta ez dizkiodan inori zor, baina, nekatuta nagoenean, ez da erraza zenbait egoerei aurre egitea".

Gazteengandik ere jaso ditu erantzun "desatseginak". Antzematen ditu eurengan jarrera "homofobo, matxista eta arrazistak" eta horrekin "kezka" agertu du: "Irakasle naizen eskolan seme-alabarik ote nuen galdetu zidaten gela bateko ikasleek eta kontatu nienean lesbiana eta hiru alaben ama naizela, *te gusta comer los coños* erantzun zidan taldeko batek; horrelako jarrerei aurre hartzea zaila egiten zait oraindik ere, zapuztu egiten naute denbora luze baterako".

Zoritxarrez, jarrera baztertzailak bai, baina bestelakoan testigu izatea ere tokatu zaiola ere azpimarratu du: "Miresmenetik eta ausardiatik ere jasotzen ditugu mezu asko,

"BIDE LUZEA DAGO ORAINDIK EGITEKO, BAINA IRITSIKO DA NORMALIZAZIO HORI ERE"

baina, hain zuzen ere, ausardiatik bideratzen diren mezu horiek baieztatzen dute oraindik ere gizarteak nola bizi dituen sexu bereko bi pertsonen arteko harreman eta familiak. Ausardia ikusten bada, ohikotasunetik kanpo dagoen zerbait delako da. Iritsiko da normalizazioa ere".

Asteasun badago aniztasuna

Jarek bi amen alaba izatea "oso natural" bizitzen duela azaldu dio Agirrek TXINTXARRI-ri, eta hala baieztatu du txikiak ere; Amaia, *amatxo* eta Ainar, *amaren* alabak. Agirrek uste du bizi diren inguruak ere lagun dezakeela horretan: "Lesbiana-bikote batzuk bizi gara Asteasun, eta horrek ikusgarritasuna ematen du".

Jarek hizketan hasteko hasierako lotsak galdu eta ausartu da kazetariari hitz batzuk zuzentzera. Kontatu du bera joaten den eskolan badagoela transexuala den haur bat eta badela hiru ama-bat biologikoa, eta beste biak harrera amak-dituen harrera haur baten ikaskide ere. Naturaltasun osoz eman du horren berri, hori baita bere errealitatea, eta ez zaio arrotza.

Berak, gainera, etorkizunean, agian izango du hirugarren harrera ahizpa edo anaiaren bat. Bikoteak familia osatzeko ideari forma eman nahian hasi zirenetik dauka haur bat harreraren hartzeko gogoia, eta, baliteke etorkizunean, euren nahia gauzatzea: "Pare bat aldez deitu dugu informazio eske. Oraindik ez dugu pausoa eman etxean nahiko lan badaukagulako, baina, agian, noizbait, nork daki".

Zer da ba familia, eskuzabaltasuna eta aniztasuna ez bada? Elkarrizketa hau egiteko Agirre-Mantzizidor familiak bere Asteasuko etxean hartu zuen kazetari hau, beso-zabalik, bere etxean egongo balitz bezala sentiaraziz. Hitzordu hura baino lehen, kazetariak ez zuen inoiz hitz bat elkartrukatu ez Agirre, ezta Mantzizidorrekin ere, eta are gutxiago Jare, Maren eta Arai txikiak, baina, solasaldia amaitu eta grabagailua itzalita, etxeko terrazan duten ohe-elastikoan saltoka ari ziren umeei begira jarraitu genuen bizitzaz hizketan. Eta, aitortu behar dut, bihotza beteta hartu nuela Lasarte-Oriararako bidea, eta hori eskertzekoa, gutxienez, bada. Mila esker, familia.



Lasarte-Oria Traileko kideek, dagoeneko, Buruntza eta Mendibeltz mendietan jarri dituzte kartelak. TXINTXARRI/LOTME

'Tontor bat, izen bat' egitasmoa, martxan

Lasarte-Oria Trail elkarteko kideek herriko zein inguruetako mendi-tontorrek identifikatzeko egitasmoa gauzatzen ari dira. Oraingoz, Buruntza eta Mendibeltz mendietan jarri dituzte seinaleak, baina beste gailur batzuk ere badituzte buruan

Txintxarri

Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteko kideek egitasmo berria dute esku artean, *Tontor bat, izen bat*.

Ekimenaren bitartez, Lasarte-Oria eta inguruetan identifikatu gabe dauden mendi-tontorrek ezagutzera emango ditu LOTMEk.

Javi Olazagoitia elkarteko kideak azaldu digunez, "mendi batzuek gailur geodesikoa dute; puntu horrek mendiaren puntu garaia zehazten du. Baina ez dute bere izenik ageri den inongo

kartelik. Beste batzuk ez dute ez izenik, ezta gailur geodesikorik ere. Egitasmoari esker, pandemiarengatik hain modan dagoen jarduean, mendi eta tontor horiei ikusgarritasuna ematen diegu. Era berean, hasiberriak direnentzat ere hainbat gailur mapan jarriko ditu".

Iñaki Letamendiren ideia

Iñaki Letamendi LOTMEko kide eta herritarrek eman zien ideia, Olazagoitiak onartu duenez.

"Iñaki konturatu zen mendi batzuetan ez dagoela ez postontzirik, ezta gailur geodesikorik ere. Eta, gainera, askotan ez dela mendiaren izenik ere ageri inon. Eta niri egin zidan proposamena".

Elkarteko batzordeko kideei azaldu, eta ideia ona iruditu zitzaizela nabarmendu du. "Gabezia hori konpondu, eta ekimen honen bitartez, hain ezagunak ez diren mendiei bere lekua eman nahi izan diegu. Izan ere, ezagunak eta jendeak

Enara Gonzalez, luzera-jauziko Euskadiko txapeldun

Ostadar Atletismoko Maider Abetek eta Leire Centenok laugarren postua eskuratu dute euren probetan

Txintxarri

Ostadar Atletismoa ataleko Enara Gonzalez, Maider Abete eta Leire Centeno aire zabaleko 18 eta 20 urte azpiko Euskadiko txapelketan lehiatu ziren, maiatzaren 8an, Durangon, eta Gonzalezek pista

estaliko denboraldiko balentria lortu zuen berriro ere: 20 urtez azpiko urrezko domina lortzea.

Luzera-jauziko txapelketaren hasieratik buru jarri zen Gonzalez herritarra. Lau jauzi baliozko egin zituen herritarrek lehiaketan,

eta lauetan markak ondu zituela jakitera eman du Oscar Goikoetxea prestatzaileak; 5,52 metroko jauziarekin Euskadiko titulua lortu zuen. "Sasoi onean dagoela erakutsi du", onartu du Ostadar Atletismoko arduradunak.

Dominik ez lortu arren, Abete eta Centeno podiumetik gertu izan ziren; biek laugarren postua eskuratu zuten haien probetan.

Maider Abetek 20 urtez azpiko 100 metroko lasterketako finalean parte hartu zuen. 13,36 segundoko denbora eginez, finalaurreko

Irailaren 26an, III. Mendi Festa

LOTME elkarteak jakitera eman duenez, III. Mendi Festak badu data. Irailaren 26an antolatuko du elkarteak Lasarte-Oriako mendi inguruez goatzeko hitzordu berezia.

Oinez edo korrika, hiru ibilbide egiteko aukera izango da aurten. Ibilbide luzeak 30 km eta 1.600 metroko garaiera positiboa izango ditu. Motzean, berriz, 13,5 kilometro eta 650 metroko garaiera positiboari egingo dioite aurre parte-hartzaileek.

Azkenik, II. edizioan, COVID-19 neurriak zirela eta bertan behera geratutako Ttapi-Ttapa ibilbidea berreskuratu dute antolatzaileek. 8 kilometrotako ibilbide honek ez du ia zailtasunik, 350 metroko garaiera positiboa du eta familiek egiteko modukoa da.

Ekainaren 1ean irekiko da izen-ematea www.kronoak.com orrialdean, asteartez, eta plazak mugatuak izango dira.



II. Mendi Festako irudia. TXINTXARRI

igo ohi dituen mendiek horretako seinaleak eta gehiago baitituzte."

Lehenengoa, Buruntzan

LOTMEko kideak apirilean hasi ziren lanean, eta izendatu zuten lehen gailurra, Buruntza mendiarena izan zen. "Lasarteoriatarrek ohitura handia dugu Buruntzara joateko, eta bertako gailurra zein den ezagutarazi nahi izan dugu".

Buruntza gailur geodesikoa duen tontorra dela azpimarratu du Olazagoitiak, baina "herritarrek postontzia eta gurutzea dagoen lekua dute gailur bezala".

Gurutzea, ordea, hegoaldeko gailurra da, LOTMEko kideak azaldu duenez. "Gurutzea hegoaldeko tontorrean dago kokatua. Gailur horrek, gainera, benetakoak baino altuera gutxiago du".

Bigarren mendi bat ere izendatu berri dute: Errezilgo Mendibeltz. "Ahaztutako tontorra da Mendibeltz. Bere parean dagoen Erniok egiten dio itzala, eta jende gutxi igaro da bertatik", aipatu du Olazagoitiak.

Javi Olazagoitiak aurreratu digunez, egitasmoak jarraipena izan du. Oraingoz bi mendiren tontorrek dituzte buruan, "baina egitasmo hau ez da gaur, bihar edo hurrengo urtean geratuko. Gabezia hori ikusten dugun lekuetan jarriko ditugu kartelak", adierazi du.

EZAGUNAK EZ DIREN MENDIEI ETA HAIEN TONTORREI IKUSGARRITASUNA EMAN NAHI DIETE



Gonzalez, podiumean. OSTADAR ATLETISMOA

13,40ak hobetu zituen, eta bere marka berri zuen.

Maila bereko 800 metroko lasterketan lehiatu zen Leire Centeno, eta 2:46,63 marka egin zuen. "Probako momentuan zegoen beroak emaitzean eragin izan du. Hala ere, bere markatik gertu egon da", aipatu du Goikoetxeak.

Bestalde, Ostadar Atletismoa saileko kideek jakitera eman dutenez, Naroa Furundarenak Espainiako Kluben bigarren jardunaldian parte hartuko du BAT taldearekin.

Arteaga II.a, buruz buruko txapelketan

Nahiz eta Baiko enpresak antolatutako sailkapen partida ez gainditu, Arteaga II.ak txapelketa nagusiko final zortzirena jokatu du Zabaletaren aurka, maiatzaren 15ean. Erik Jakaren lekua hartuko du herritarrak eta "ilusioz" ekingo dio txapelketari

Txintxarri

Axier Arteaga, Arteaga II.a, EPEL buruz buruko txapelketako aurkezpenean izan zen maiatzaren 12an. Egungo txapelketa Erik Jakak ezingo du lehiaketan parte hartu eta Baikok Lasarte-Oriako pilotaria aukeratu du bere lekua betetzeko.

Erik Jaka ondoezik sentitu zen pasa den asteko igandean jokatzeko ari zen neurketan eta ospitalera eramane zuten. Azterketak egin eta periokarditisa diagnostikatu diote. Lau eta zortzi aste artean beharko ditu osatzeko, eta beraz, ezingo du asteburu honetan hasten den txapelketa lehiatu.

Arteaga II.a "pozik eta atsekabetuta" dago. "Alde batetik lankide baten lesioarengatik sailkatu izanak, pena edo tristura ematen dizu lankidearen egoerarengatik; bestetik, poza ere sentitzen da txapelketa jokatzeko beste aukera bat delako. Denok nahi dugu txapelketa jokatu. Azken urteetan pilotari gutxi, enpresako sei pilotari onenek parte hartzen dute, eta hor egotea pozgarria da".

Artolaren garaipena

Lehen aukera ostiralean, maiatzaren 7an, izan zuen herritarrak. Baiko enpresak antolatutako sailkapen partida jokatu zuen Arteaga II.ak Artolaren aurka, eta 22-2 galdu zuen.

Artolaren aurkako partida zaila izango zela bazekien herritarrak eta argi zuen bere jokoak nolako izan behar zuten. "Artola kolpezi baino sendoago dago eta banekien menderatuko ninduela tanto askotan. Sakeaz baliatu eta ahalik eta azkarren tantoa amaitu behar nuen".

Partidan, ordea, ezin izan zuen teoria praktikan jarri eta horregatik "goibel" dagoela onartu du. "Gehiago borrokatzea espero nuen, Artola estuago hartzea eta partida barruan



Arteaga II.a, ezkerretik hirugarrena, txapelketako aurkezpenean. JON ALTUNA EGITEGI

egotea. Baina ez nuen lortu, eta triste nago horregatik. Ez nintzen gustura geratu egindako lanarekin eta emaitzarekin".

Izan zituen aukerak ez zituela ongi aprobetxatu ere nabarmendu du Arteaga II.ak. "Nik ez nituen aprobetxatu izan nituen aukera urri horiek. Bi sake izan nituen eta gero bi gantxo ez nituen gurutzatu, txokoan utzi nuen zabaldu beharreko pilotakada bat... Nik aukera gutxi horietan barkatu nuen eta Artolak, berriz, partida osoa egin zuen".

Artolak egindako lana txalotzen du herritarrak. "Artolak gauzak ongi egin zituen. Sakean ongi ibili zen eta eskuinarekin ere oso bizi jo zuen pilota".

Ilusioa

Aurretiko sailkapen partida motorrak berotzeko balio izan dio Arteaga II.ari eta bere helburua "iazko itxura hobetzea" izango dela onartu du. "Nire bertsio onena kantxan ateratzea dut buruan. Horrela, arerioei lanak emango dizkiet ni garaitzeko. Partidetan eta kantxan ondo sentitzea eta irabazi edo galdu egindakoarekin etxera joatean ondo sentitzea".

Aurkezpenera arte Arteaga II.ak ez zuen jakin lehen arerioa Zabaleta izango zuela. Hala ere, maila handiko txapelketa izango

dela jakitun da herritarrak. "Enpresa bakoitzeko sei pilotaririk onenak, lehen mailakoak eta punta puntakoak izango dira lehiakide eta tokatzen dena tokatzen dela partida gogorra izango da edo zaila izango da irabaztea. Baina ez da ezinezkoa izango. Lehen kanporaketara ilusioz joango naiz eta ea neurketa ona jokatzetik dudana".

Kadeteen garaipena

Afizionatu mailan, berriz, Udaberri Txapelketako bigarren saioari aurre egin zioten Intza pilota elkarteak kideek. Oraingoan kadeteek izan ziren garaipeneko puntuak lortu zituztenak.

Etxean jokatu zuen 2. mailako kadeteak eta ederki baliatu ziren gaztetxoak abantailaz. Beñat Olazabal eta Pedro Elosegui bikoteak 22-17 garaitu zuten Añorgako bikotea. "Orokorrean partida ona jokatu zuten. Aurkariak baino ziurrago jokatu zuten eta nabaritu zen", adierazi du Jose Felix Solano Intzako prestatzaileak.

Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak osatutako I. senior bikoteak ezin izan zuen Tolosa 2 bikotearen aurka. Tolosako bikotea nagusi izan zen eta 22-12 gailendu zuen.

Ostadar Inklusioa saileko kideak, podiumetik podiumera

Asteburuan, euskal pilotako bi hitzordu garrantzitsutan lehiatuko da talde urdin-beltzeko Ander Altuna gaztea

Txintxarri

Ostadar SKT kirol elkarteak kirol egokitu eta inklusiboko taldeko kideak pixkanaka txapelketetan murgiltzen hasi dira. Taldeko kideentzat entrenatze hutsa zaila den arren, emaitza onak lortzen ari dira.

Bigarren postua eskuratu zuen Xuban Santinek Espainiako gazteen Boccia txapelketan. Apirilaren 24 eta 25ean, Madrilen lehiatu zen gaztea eta BC1 mailako finalera iritsi zen. Honetan, ezin izan zuen Francisco Bautista valentziarra garaitu.

Basaurin, maiatzaren 2an jokatu zen Euskadiko atletismo egokituko txapelketan, berriz, Ane Asensiok eta Diana Benedictok podiumera igotzea lortu zuten.

Asensio 100 metro eta 200 metro gurgildun aulkiko proban garaile izan zen; Benedictok, berriz, zilarrezko domina jantzi zuen 800 metroko lasterketan.

Finala Lasarte-Orian

Asteburu honetan, gainera, bi hitzordu garrantzitsu izango dituzte Ostadar Inklusio taldeko euskal pilota ataleko kideek; horietako bat, Lasarte-Orian.

Larunbatean, hilak 15, Gipuzkoako XI. Euskal Pilota Egokituko jardunaldia izango da Lasarte-Oriako Loidi-Barren pilotalekuan, 11:00etatik aurrera. Horretan, gurgildun aulkiko buruz buruko zein bikotekako partida interesgarriak jokatu dira.

Buruz buruko txapelketaren kasuan, azken jardunaldia izango da eta txapelketako irabazlea ezagutuko da. Hiru neurketek osatzen dute saioa eta horietako batean, talde urdin-beltzeko Ander Altunak Mindarako Manu Quesada izango du aurrez aurre.

Buruz buruko partida horien aurrekari, gurgildun aulkiko bikotekako partidak izango dira. Eta horietan ere izango da lehiari Ostadar Inklusio pilotaria. Parte-hartzaileek ekainaren 26an jokatu du finalerako sailkapena dute jokoan.

Igandean, berriz, Altunak eta Beñat Lizaso oartzuarrak Euskal Pilota egokituko Master Cup txapelketako finala jokatu dute, 12:00etatik aurrera, Getarian. Yann Neunier eta Maixi Cabanne lapurtarrak izango dituzte arerio. Altunaren bikote Beñat Lizaso 2019. urtean txapelketa izan zen eta iaz finala jokatu zuen.



TXINTXARRI

Garaipenaren bidera itzuli da

Ostadar Boleibola taldeak Fortuna B garaitu zuen maiatzaren 8an, Maialen Chourraut kiroldegian. Asier Acuriolak prestatzen duen taldeak hiru setetan erabaki zuen partida. Lehenean 25-13 gailendu bazen ere, bigarren eta hirugarren zatietan gehiago borrokatu behar izan zuen talde urdin-beltzak; 25-21 eta 25-19. Garaipeneko puntuak esker, sailkapeneko lehen postuetan mantentzen da taldea, Fortuna A eta Aldapeta Mariarekin 12 puntura berdinduta.

Chourraut Tokiorako azken txanpan da

Maialen Chourraut herritarra zortzigarren izan da Ivrea, Italian jokatu den Europako txapelketan. Emaizta "gazi-goza" izan da herritarrarentzat. Baina Tokikoko Joko Olinpikoei begira, esperientzia ona dela nabarmendu du

Txintxarri

Maiatzaren 6tik 9ra Europako slalom txapelketa jokatu zen Italiako Ivrea herrixkan. Bertan Europako piraguistarik onenak bildu ziren, Maialen Chourraut herritarra horien artean.

Urteko lehen hilabeteetan lehiatutako txapelketetan lortutako emaitzak eta sentsazioak onak izanik, lehiatzeko gogoekin zegoen Chourraut. Baina zortzigarren postuan amaitu zuen lehiaketa lasarteoriatarak eta beretzat emaitza "gazi-goza" dela jakitera eman digu. "Hor zaudela, ongi ibili nahi duzu eta gero eta gorago hobeto. Baina hotzean begiratuta erabat kontrolatuta ez duzuen ibai batean gauzak ateratzea ez da erraza. Finalean egotea oso garrantzitsua izan da eta borroka horretan gauden bitartean, gauzak ongi doazen seinale da".

Sailkapenean 11. izan ostean, finalurrekoan lehen postua eskuratu zuen herritarrak. "Finalean egotea ziurtatu nahi nuen. Ibilbidea modu egokian egiten saiatu nintzen eta jaitziera garbia egin nuen, txukuna eta lehen postua lortu nuen".

Finalean jaitziera azkartu behar zuela eta, guztia jokatu zuen. "Hasierako partean azkar joan nintzen. Ate bat ukitu nuen eta bukaeran beste bat saltatu nuen.



Maialen Chourraut, Europako txapelketako sailkapen proban. BAT BASQUE TEAM

Zergatia bilatzea ez da erraza izaten: ondo kokatua nengoen eta teknikoki ere ondo nengoen, baina, urak bultzatu, eta ezkerretik joan nintzen. Atzera jo behar izan nuen eta bertan galtzen den denborarekin jaitziera pikutara doa. Beraz, zortzigarren geratu nintzen".

Tokio buruan

Europako txapelketa gutxi prestatutako txapelketa izan dela nabarmendu du. "Arerioek ordu asko egin zituzten kanalean eta askorentzat garrantzitsua zen, euren selekzioko Joko Olinpikoetara hautaketa probetarako baliagarria zelako. Nik ez nuen ibaia ezagutzen eta

ez nituen hainbeste ordu egin", onartu du Chourrautek.

Izan ere, Tokioko Joko Olinpikoetarako prestakuntza fintzeko antzeko baldintzak dituen Vaires-sur-Marne kanalean egon baita lanean. "Nire entrenamendu guztiak Tokioko kanalarri begira prestatzen ari naiz eta egutegian gauza batzuk aukeratu behar dira", adierazi du.

Azken txanpa honetan Pragako Munduko Kopako proba izango du herritarrak. "Garrantzitsua da orain txapelketa batzuk egitea non hobetu behar dugun ikusteko. Gorputza Jokoetarako estres puntu horretan jarri behar dut".



LOKEko gimnastak, 2018-2019 ikasturte amaierako erakustaldian. TXINTXARRI

LOKEko gimnastek, amateur txapelketa presentziala

Bakarkako zein taldekako txapelketa Tolosako Uzturpe pilotalekuan jokatu da maiatzaren 16an

Txintxarri

LOKE gimnastika saileko kideek Amateur txapelketari hasiera emango diote asteburuan.

Duela aste batzuk Gipuzkoako Federakuntzak Internet bidezko txapelketa izango zela igarri bazuen ere, azkenean presentziala izango da eta, maiatzaren 16an, igandearrekin Tolosako Uzturpe pilotalekuan Gipuzkoako federatu mailako gimnastak bilduko dira. Bakarkako, zein taldekako lehiaketa izango da eta LOKEk bietan parte hartuko du (ikus ondoko koadroa).

Lehiaketan ez da ikuslerik izango eta protokolo zorrotza jarraituko dute lehiatzeko. Horregatik, goiz eta arratsaldean saioak izango dituzte.

LOKEko gimnastentzat pandemia garaiko lehen lehiaketa izango da, beraz, indarrak neurtu eta arerioen maila ikusteko balioko du jardunaldi honek.

Bestalde, eskolarteko Topaketa sarean izango denez, LOKEko gimnastek maiatzaren 22an euren lanak grabatuko dituztela jakitera eman du taldeak. Ostean, Federazioari igarriko dizkiete.

Bakarkako lehiaketa

- Garazi Gomez Senior A.
- Paula Martinez Senior B.
- Maitane Arroyo Jubenil A.
- Miren Prieto Jubenil A.
- Ambar Rodriguez Jubenil B.
- Aitana Molano Kadete B.
- Maria Polina Kadete B.
- Erika Tejero Kadete B.
- Iraia Berasarte Kadete B.

Taldekako lehiaketa

Kadete B maila

- LOKE 1 taldea
- LOKE 2 taldea

Ostadar SKTren Ohorezko Erregionalak lehen fasea amaitu du

Añorgaren aurka 1-3 galdu zuen talde urdin-beltzak eta bere multzoko zazpigarren sailkatu da

Txintxarri

Ostadar SKTko Ohorezko Erregionalak lehen faseko azken jardunaldia jokatu zuen larunbatean, Michelin kirolgunean. Aurrean txapelketako buru zen Añorga B izan zuen.

Alex Callak zuzentzen duen taldeak 10. minutuan hautsi zuen husnako berdinketa. Añorgak, ordea, ez zuen amore eman eta 25. minutuan banako berdinketa lortu zuen. Atsedendira arte, bi taldeak

markagailuan aurreratzea bilatu zuten baina ez zen posible izan.

Bigarren zatian, Añorga indartsu hasi zen erasoan eta Ostadarrek ongi eutsi zion. Tamalez, 82. minutuen 2 eta 1ekoa etorri zen eta partida bukatzeaz zegoela, hirugarrena egin zuen arerioak.

Liga erregularra amaituta, Ohorezko Erregional taldea I. Multzoko zazpigarren postua eskuratu du. Hori dela eta, iguera edo txapeldunen faseko postuetatik urruti geratu da.



Neurketako irudia. TXINTXARRI

Ez zen hori asteburuko porrot bakarra izan. Ostadar SKT eta Texas Lasartearrako taldeek ez zuten astebururik onena izan eta gehienek euren partidak galdu zituzten. Ostadar SKTko I. jubenil taldeek eta I. kadete mailako B taldeak izan ezik, euren partidak atzeratuak izan baitziren.

Emaitzak: I. Erregionala, Antigua Luberri 3 - Ostadar 1; Kadeteen Ohorezko maila, Antiguoko 1 - Ostadar 0; I. Kadetea, Ostadar A 2 - Urnieta B 3 eta Texas Lasartearra 2 - Hernani 3.

ZORIONAK!



Pedro
Zorionak, txapeldun, sei urte honezkerok! Oso harro gaude zutaz, asko maite zaitugu! Aita, ama eta Laura.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaile ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko

da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.

Deitu 943 37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

OHARRA

Kutxa Bira


Bizi gira...kutxa bira! egitasmoa jarri du martxan Iparra-Hegoa elkarteak.

Egurrezko kutxa bat Euskal Herria zeharkatzen ari da: martxoaren 20an hasi zuen ibilbidea, eta maiatzaren 30ean amaituko du. Helburua da parte hartu nahi duen herri, ikastetxe, elkarte, eragile... orok egurrezko kaxa horretan bete nahi dituen ametsak eta aldarrikapenak sartzea.


Lasarte-Oriatik maiatzaren 27an pasako da, 17:30ean. Egitasmoarekin bat egin nahi duen oro Joxe Mari Agirretxerekin jar daiteke harremanetan, 616 43 21 69 telefonora deituta.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 14




Larunbata, 15




Igandea, 16




Astelehena, 17




Asteartea, 18



Asteazkena, 19



Osteguna, 20



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 14	GIL	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-22:00
LARUNBATA, 15	ACHA-ORBEA	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 16	ACHA-ORBEA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 17	DE MIGUEL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 18	LASA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 19	GIL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 20	ACHA-ORBEA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

URTE OSOKO GUARDIAK APP-A eskuragarri app store edo android marketen

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com orrialdean eskuragarri.

SUDOKUA

	8						5
		5	9		6	8	3
	9		5	8	1	7	
		9	1		2		7
1	7			9	8		4
	2	8			7	6	
9	6	4	7		3	2	
		2		4			7
	1	7		2			9

Lesbosera kirol-materiala bidaltzeko bilketa

Kirol-oinetakoak eta futboleko jokatzeko botak bilduko dira maiatzaren 19ra arte, asteazkenarekin, egun hori barne, Ostadar SKTko lokalean (Geltoki kalea, 25).

Jasotako materiala Greziako Lesbos uhartera bidaliko da, bertan bizi diren errefuxiatuekin lanean ari den Yoga and Sport with Refugees GKEak jaso dezan.

Kontuan hartu, mesedez, oinetako horiek beste pertsona batzuek erabiliko dituztela, eta beraz, egoera egokian egon behar direla. Mila esker zure ekarpenagatik!

Urrezko ezteiak egin dituzten bazkideen izen-emate epea irekiko du Biyak Batek

Biyak Bat egoitzako zuzendaritzak jakinarazi duenez, maiatzaren 15etik irailaren 15era izena eman ahalko dute 2020ean edo 2021ean urrezko ezteiak egin dituzten elkarte bazkideek. Bazkide-txartela eta familia-liburua erakutsi beharko dituzte inskripzioa egiterakoan.

Heriotzen berri eman

Ingurukoren baten heriotzaren berri TXINTXARRI aldizkarian *Heriotzak* atalean eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren, izen-abizenak eta heriotza data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

“KRISI GARAIAN, PUBLIZITATEA
DA INBERTSIORIK ONENA”

HORREGATIK... DESKONTU BEREZIAK DITUGU
HERRIKO KOMERTZIO, ENPRESA ETA OSTALARIENTZAT

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN
Garaje marra alokatzen da Golf plazan, Landaberri-Garaikoetxea ikastolaren frentean. Zabala, sarbide erraza, ekonomikoa.
Harremanetarako zenbakia, 659 02 19 45.
Garaje bat alokatzen da Donostian, Antigua auzoko Iruña kalean. Harremanetarako zenbakia, 671 60 57 31.
Garajea alokatzen dut Torre parkean (Brigidatarren plazan). Harremanetarako zenbakia, 648 20 08 11.

LANA

ESKAITZA
Zaintzailea behar da adineko bi pertsona zaintzeko, interna modura, osasun-bazkide ziurtatua, esperientzia eta adinekoak zaintzeko gomendioak dituena. Harremanetarako zenbakia, 685 70 44 40.

ESKARIA

Pertsona eskaintzen da orduka etxe garbitu edo pertsona adinduek zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prestutasuna. Harremanetarako zenbakia, 608 93 56 74.
Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaindu edo eurekin paseatzeko. Orduka edo externa gisa lan egiteko. Harremanetarako zenbakia, 663 49 98 41.
Adineko pertsonak zaindu edo eurekin paseatzeko

nuke. Orduka edo externo gisa lan egin nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko eskaintzen dut nire burua. Paperak eguneratuta dauzkat. Harremanetarako zenbakia, 651 51 92 69.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketean.

Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

Pertsona eskaintzen da etxeko garbiketara lan egin, leihok garbitu, adineko pertsonak paseatzeko edo umeak zaintzeko. Orduka edo externa. Harremanetarako zenbakia, 619 35 58 19.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan

edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.
Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketara lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

SALEROSKETA

SALDU
Mitsubishi Montero 2.5 TDI GLS motza salgai. 24 urte ditu eta 162.000 km. egin ditu. Beti garajea gordeta. Oso ondo zaindua, oso egoera onean dago Harremanetarako zenbakia, 620 18 87 87.
Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

▶ Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943 37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaleak

Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide
Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz
Ezeiza, Iker Lanchas, Iñigo Garcia,
Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

LARUNBATA 15

LASARTE-ORIA Tailerra

Auzoz auzoko tailerrak antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak maiatzerako. Horietako bat izango da baratzeko lanak egiten ikasteko saioa.

Zumaburu plaza, 11:00etatik 13:30era.

LASARTE-ORIA Tailerra

Auzoz auzoko tailerrak antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak maiatzerako. Ipuin-kontalariaren eskutik, "istorio harrigarri eta dibertigarriak" entzungo dituzte parte-hartzaileek.

Oria auzoko Brunet parkea, 12:00etatik 13:00etara.

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Iñaki Lopez de Luzuriaga historialariak *Nafarroako erresumaren inbasioa (1199-1200)* liburua aurkeztuko du. Aforoa mugatua izango da.

Antonio Mercero gunea, 12:00etatik 13:00etara.

OSTIRALA 21

LASARTE-ORIA Dokumentala

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak *Ocupacion SA* dokumentala emango du; Mendebaldeko Saharan gertatzen diren espoliazioen gainekoa da. Horren ostean, Joan Soroeta katedradunak hitzaldia eskainiko du. Antonio Mercero gunea, 19:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Otra ronda (Druk)
(JBG)

Ostirala. 19:00.

Nomadland

Igandea: 19:00.



LABURPENEA

Otra ronda (Druk)

Zuzendaria: Thomas Vinterberg. **Gidoia:** Tobias Lindholm, Thomas Vinterberg. **Argazkilaritza-zuzendaria:** Sturla Brandth Grovlen. **Musika:** Franziska Henke. **Herr.:** Herbehereak (2019). **Aktoreak:** Mads Mikkelsen, Thomas Bo Larsen, Magnus Millang, Lars Ranthe, Maria Bonnevie, Susse Wold, Dorte Hojsted, Martin Greis, Helene Reingaard Neumann, Magnus Sjørup, Mercedes Claro Schelin, Frederik Winter Rasmussen, Silas Cornelius Van, Albert Ludbeck Lindhart, Aksel Vedsegaard, Aya Grann. **Iraupena:** 116 minutu. **Herrialdea:** Danimarka. **Generoa:** Drama.

Alkoholaren boterea

Okendo Zinema Taldearen eskutik, *Otra Ronda (Druk)* filma ikusi ahalko dute lasarteoriatarrek, kultur etxean. Jatorrizko bertsioan eskainiko dute luzemetraia, gaztelaniazko azpidatziekin.

Institutuan irakasten duten lau irakaslek esperimendu soziologiko bat martxan jartzea erabaki dute, honako teoria honetan oinarrituta: jaiotzetik 0,5eko alkohol-tasarekin jaiotzen bagina, eta bizitza osoan zehar hori mantenduko bagenu, horrek areagotu egingo luke gure sormena, eta gure ogibideetan hobe arituko ginatke. Aipatu lau irakasle horiek uste hori frogatzen saiatuko dira.

Thomas Vinterberg danimarkarrak zuzendutako filmak arrakasta izan du nazioartean, hainbat sari irabazteko izendatua izan baita pelikula hori. Besteak beste, Oscar sarietan: zuzendari onenaren eta atzerriko luzemetraia onenaren sariak jasotzeko hautagaia izan da.

Musikaren asteburua



Oiasso Kamerataren emanaldiaren une bat. TXINTXARRI



'Marina' zarzuela oholtzaratu du Sasibill elkarte lirikoak. TXINTXARRI



Thierry Biscary, mikrofonoa eskuetan duela, dena ematen. TXINTXARRI

Danok Kide elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatutako IX. Musika Asteak zapora ona utzi du antolatzaileen ahotan, pasa den asteburuan antolatutako hiru emanaldiez gozatzen herritar ugari joan zirelako Manuel Lekuona kultur etxera.

Oiasso Kameratak Argentinara bidaiari eraman zituen ikus-entzuleak, besaulkitik altxa gabe, kultur etxean oholtzaratu zituzten tangoen haize goxoarekin. Brian Balmagesen *Phantom Tangos* jo zuten

aurrena, eta ondoren, Arturo Cardelusena *Con aire de tango*, Marina Beheretche bakarlararekin batera. Orduetik aurrera, bakarrik jarraitu zuten Oiasso Kameratako hamabost musikariek: Isaac Albenizen *Tango en Re*, Alberto Williamsen *Hueya*, Carlos Guastavinoren *Romance en Colastiné*, Astor Piazzolaren *Llertango*, Aldemaro Romeroren *Fuga con pajarillo* eta The Police taldearen *El Tango de Roxanne* obrek osatu zuten programa.

Sasibill elkarte lirikoak, *Marina* opera eskaini, eta hankaz gora jarri zuen kultur etxea; Emilio Arrietak sortutako piezaz gozatu zuten ikus-entzuleak. Zarzuela gisa osatu bazuen ere, urte batzuk geroago, opera bilakatu zuen konposatzaileak *Marina*, Jorge eta Pascualen maitasun gorabeherak oinarri dituen obra. Lehen lerroetako musikariek doinua jarri zieten aktoreei eta oholta gainekeen ahotsek kontatu zuten lan ospetsuaren istorioa.

Thierry Biscary musikari baxe nafarrak eman zion amaiera IX. Musika Asteari. *Muda* disko berria aurkeztu zuen, zenbait aldaketa motetan oinarritutako abestiek osatutako lana. Emanaldi horrek giro intimoagoa izan zuen aurrekoek baino. Diskoko kanta bakoitzaren atzeko hori azaldu zien Biscaryk 30 bat ikus-entzuleri, zenbaitetan ia malkotaraino hunkitzeraino. Bizitzako askotariko egoerek eragindako aldaketa dute lotura-hari abesti guztiek.

Zenbat dakizu herriaz?

 lehiaketa

Zenbat dakizu bizi zaren herriaz?

TXINTXARRI aldizkariak Lasarte-Oriaren gaineko galdera-sorta batekin, lehiaketa jarriko du martxan. Maiatzaren 17tik 23ra bitarte parte hartu ahalko da, aldizkariaren web atarian. Galdera gehien asmatzen dituen lehiakideak patata-tortila eder bat irabaziko du

Txintxarri

Jakin badakigu Lasarte-Oria izeneko herri batean bizi garela, baina zer gehiago dakigu gure herriaz? Ba al dakigu duela zenbat urte sortu zen udalerrigisa? Eta, adibidez, urte horietan zenbat alkate izan dituen?

Zuen jakintza maila neurtu nahi duzue? Adi! Lasarte-Oriaz zenbat dakizuen jakiteko galdera-lehiaketa prestatu dugu-eta!

Besteak beste, herriko historiaren, kultura-eragileen, sortzaileen, kirolarien,

musikarien eta politikarien gaineko hamar galdera erantzun beharko dituzue.

Maiatzaren 17tik 23ra izango duzue lehiaketan parte hartzeko aukera www.txintxarri.eus/lehiaketa atarian, eta, irabazlea hilaren 24an iragarriko dugu.

Galdera gehien asmatzen dituen parte-hartzaileak, Jalgi Kafe Antzokiak eskainitako patata-tortila eder bat eskuratuko du sari gisa, eta parte-hartzaile guztien artean, berriz, Bilboko Guggenheim museora maiatzaren 30ean bisita

egiteko bi sarrera zozkatuko ditugu.

Zozketan parte-hartzeko, izena emateko formulario bat betetzea ezinbestekoa izango da, eta lehiatzen zaretenon sailkapena uneoro ikusgai egongo da, web atarian.

Oharra: galdera guztiak ondo erantzuten dituen parte-hartzaile bat baino gehiago badaude, zozketa bat egingo da patata-tortilaren irabazlea zehazteko.

Animatu eta parte hartu! Zorte on!



www.txintxarri.eus/lehiaketa